



Getxo

ANDRÉS ISASI MUSIKA ESKOLA

bizi ezazu

MED

Musika Eskola Digitala

Zenb./Nº 37
Urtea/Año 2017
Maiatza/Mayo

HILEKO JARDUERAK

Maiatzaren 4an: Kontzertu didaktikoa; Musika Modernoa. 11:00etan udalerriko ikastetxeentzat eta 18:00etan familientzat. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 7, 14, 21 eta 28an. 19:30ean: "Andrés Isasi" Musika Eskolako jazz-taldeak eskainitako Jam Session-ak. Areetako "El Comercio" tabernan.

Maiatzaren 12an. 18:30ean: Musika Eskolako kontrabaxu-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Algortako egoitzan.

Maiatzaren 16an. 18:30ean: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 17an. 19:30ean: Musika Eskolako biolontxelo-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 18an. 18:30ean: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 20an: Musikalidia Bilbon.

Maiatzaren 23an. 18:30ean: Musika Eskolako flauta-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 24an. 17:45ean: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 25ean. 18:30ean: Musika Eskolako gitarra-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 26an. 18:00etan: Musika Eskolako gitarra eta jazz-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 29an. 19:30ean: Musika Eskolako perkusio-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 30ean. 19:00etan: Musika Eskolako biolin eta biola-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

Maiatzaren 31n. 18:30ean: Musika Eskolako piano-ikasleen emanaldia. "Andrés Isasi" Musika Eskolako Areetako Entzunaretoan.

BA AL ZENEKIEN?

Musikak on egiten dio zirkulazioari. Maryland-eko Unibertsitateko Zentro Medikoaren zientzilariek erakutsi dutenez, musika entzuteak sistema kardiobaskularri ariketa fisikoak edo zenbait medikamentu adina on egin diezaike. Konkretuki, odol-hodien erantzuna ultrasoinuen bidez aztertuz musika entzuten ari garen bitartean, Michael Millerrek eta bere kideek ikusi zuten hodian diametroa, besoaren goiko aldean neurtuta, %26a handitzen dela gure musika gogokoarenekin. Berriz, estresagarri deritzogun musikak %6a txikitzen ditu hodiak. Ikerketek erakutsi zuten ere, barre eginarazten duten abestiak entzunez odol-hodiak %19a handitzen dira, musika lasagarriak %11ko zabaltzea eragiten duen bitartean.

MUSIKALDIA 2017. ABIAN DA FESTA!

Maiatzaren 20an, larunbata, goizeko hamarretatik aurrera, Bilboko Alde Zaharra Euskadiko Musika Eskolen ikaslez gainezka jarriko da.

EHME Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearen (Musika Eskolen Elkarte honen kide gara gu), eta Bilbao Musika Eskolen eskutik (Jesus Arambarri Musika Eskolaren bitartez), Musikalidia ospatuko dugu.

Musikalidia, Musika Eskolen irakasle eta ikasleak biltzeko eguna da. Egun horretan, gure udalerrietako baten kaleak kolorez eta musika gozatu eta ikasteko osagarri bihurtu duten askoren musika egitearen berotasunaz betetzen dira. Musikalidia EHME-ren jatorrizko ideia da eta Pasaian ospatu zen lehenengoz 1979. urtean. Zuetako askok gogoan izango duzue hemen, Getxon, ospatu zenean 2003ko maiatzean.

Bi mila ikaslelik gora izango dira aurreko parte hartuko dutenak. Plaza Berria, Areatza, Arriaga, Unamuno Plaza, Konkordia Geltokia, Santiago Katedrala, Euskal Museoa... dira gu hartzeko prest aurkituko ditugun agertokiak batzuk.

Gu geure txistu-ikasle eta fanfarreekin joango gara, kalejira desberdinekin kaleak animatzeko asmoz. Eskolako beste askok ere parte hartuko dute: "Aixerrota Kamerata" eta "Andrés Isasi" orkestrak, "Arrigunaga", "Andrés Isasi" eta "Ibar" abesbatzak, "Beep" jazz-sekotea, Adrián Nieves eta Carmen Bilbao piano-ikasleak eta Eskolako banda txikia, guztiek Alde Zaharrean banatuko diren agertoki desberdinetan. Apur bat urrunago, Juan Crisóstomo Arriaga Kontserbatorioan, ohiko Gitarra-topaketa ospatuko da eta, noski, gure eskolako ikasleek ere parte hartuko dute.

Goizeko hamarretan emango zaio hasiera Areatzako kioskoan. 10:45etik 15:00ak arte, talde eta ikasle desberdinen emanaldiekin gozatzeko aukera izango dugu. Arratsaldean, jai-giroak jarraituko du Bilbon.

Animatu etortzera eta egun polit horretaz gozatzera.

2017-18 IKASTURTERAKO IZENA EMATEA. IKASLE BERRIAK

Maiatzaren 15a eta 31 bitartean izango dugu zabalik Musika Eskolako onarpen berrientzat izena emateko epea. Badakizu; adina ez da oztipoa. Garrantzitsua dena, musika gustokoa izatea da, ezagutu nahi izatea abestuz, musika-tresnaren bat joz, taldean... Ziur ikastera animatu ditzakezun ahadieak, lagunak edo ezagunak dituzula. Partekatu zure esperientzia eta gonbida itzazu haiek ere gurekin ikastera.

Hileko egutegia

Maiatza

al	ar	az	og	or	la	ig
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

■ Jai-egunak
■ Jarduerak eskolan
■ Jarduerak jai-egunetan